

URNIETAKO  
EMAKUMEEN ETA  
GIZONEN  
II. BERDINTASUNERAKO  
PLANA

Izenburua:

URNIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN II. BERDINTASUNERAKO PLANA. 2017-2020

- Urnietako Udalak egina
- GKTek koordinatuta
- Laguntza teknikoa: Eraberria Gunea S.L.

Emakundek diruz-lagundatako proiektua



# AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	4
2.	Sarrera	5
3.	Arau-esparrua	6
4.	Lantze prozesua	12
5.	Printzipio gidariak	13
6.	Egitura	14
7.	Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa	15
8.	Berdintasun gaietan esku hartzeko ardatzak	28
	1. Emakumeak ahalduntzea	29
	2. Bizitzaren jasangarritasuna	36
	3. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza	42
9.	Komunikazio estrategia	47
10.	Egiturak eta funtzioak	48
11.	Kudeaketa-sistema	50
12.	Eranskinak	51
	I. Kronograma	52
	II. Adierazle estrategikoak	53

# 1. AURKEZPENA

Urnietan gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde urratsak ematen ari bagara ere, oraindik beste hainbat ditugu emateke. Duela 5 urte erabaki genuen berdintasun politikei bultzada sendo bat ematea momentu hartako egoeraren diagnostikoa eginez eta lehen berdintasun plana abian jarritz. Hura amaituta, lanean jarraitzeko beharra ikusi dugu, eta, ondorioz, Eraberria enpresaren aholkularitzarekin eta herriko hainbat elkarteren laguntzarekin, bigarren berdintasun plana aurkezten dugu.

Gobernu taldearen legegintzaldiko helburuetako bat da herrian gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta konpromezu irmo horrekin aurrera jarraitu. Hala, genero ikuspegia integratu nahi dugu, bai Udalean, eta, baita, herrian ere, sexuarengatik gertatzen diren bereizkeria egoerak antzemanaz, eta egoera horiek aldatzeko neurriak hartuz. Izan ere, ezinbestekoa da batzuek eta besteek tratatu eta aukera berdintasuna izatea. Horretarako ekintza positiboko neurriak bultzatuko ditugu bigarren berdintasun plana lan tresna eta ardatz moduan erabiliz.

Bide horretan funtsezkoa da emakumeak ahalduntzeko politikak abian jartzea, haien autonomia bultzatuz, eta haien parte hartzea sustatuz. Bizitzaren jasangarritasuna bermatzea halaber, ezinbesteko baldintza da. Hau da, norberaren bizitza eta familia bizitza gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasunarekin uztartzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea. Lan munduan ematen diren desoreken aurka ere esku hartzen jarraitu behar da, lanak eta baldintzak ez baitira sexuaren arabera bereizi behar. Zentzu horretan berdintasun politikak garatzen dituzten enpresen jardunak saritu behar dira.

Bestalde, argi dago, emakumeen aurkako indarkeriak ez duela lekurik izan behar gizartean eta berau errotik desagerraraztea beste lehentasun politiko argi bat da.

Azken finean, berdintasuna bere osotasunean eta eremu guztietan integratzea bilatzen da berdintasun plan honen bidez, eta norabide horretan jarraituko dugu lanean guztion borondatearekin, ekarpenekin eta jarrera eraikitzailearekin helburua lortzeko.

## 2. SARRERA

2012. urtean berdintasun politikei halako bultzada bat emateko erabakia hartu zuen Urnietako Udalak bere udalerrian, ordura arte unean uneko esku hartze batzuk bideratu baitzituen, bereziki Emakumeen Nazioarteko Egunean (martxoak 8aren inguruan) eta genero indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean (azaroak 25). Xede horretan bideratu zituen, **Urnietako emakumeen eta gizonen aukeren berdintasunari buruzko Diagnostikoa eta Berdintasunerako I. Plana**.

Urte hartan bertan, martxoan, sinatu zuen **Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako gutuna**.

Urnietako Udalak une hartan ez zuen berdintasun arlorik, eta Gizarte Ekintzak (aipatu arloko arduradun teknikoa da proiektuaren erreferentzia teknikoa) eta behin I. Plana onartua, eraturiko **koordinazio teknikorako egitura batek**, Mahai Teknikoak, bideratu zuten aipatu proiektua.

2013-2016 eperako iraunaldiarekin zehaztu zen **Berdintasunerako I. Plana, 2012ko abenduaren 28an egindako Osoko Bilkuran** onartu zuten.

I. Planaren **ezarpena Mahai horren hileroko bilkuren bidez** koordinatu zen. 2014ko irailetik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturik, Berdinbidean-en laguntza teknikoak ere parte hartu zuen aipatu Mahaia Teknikoan.

Mahi Teknikoaren bidez eta, maila politikoan, Gizarte Ekintzaren Informazio Batzordearen bidez, I. Berdintasunerako Planaren etengabeko jarraipen lana egin da.

2016an, Planaren iraunaldiaren azken urtean, hura **ebalutzeko lanari ekin zion Urnietako Udalak**, alde batetik, neurrien ezarpen maila eta lortutako emaitzak ezagutzeko, eta bestetik, Plana bera kudeaketa eta jarraipen prozesurako tresna gisa baloratzeko, betiere Berdintasunerako II. Plana lantzeko xedean.

# 3. ARAU ESPARRUA

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea** I. Tituluak, bere I. kapituluaren 7. artikuluan, “Tokiko Administrazioen eginkizunak”, zehazten ditu **Tokiko Administrazioari emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dagozkion eginkizunak**:

1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal-mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:

- a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- c) Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- d) Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- e) Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- f) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- g) Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
- i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- j) Emakumeei eta gizoni bitzitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.
- k) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- l) Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- m) Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

Era berean, 4/2005 Legearen I. Tituluak bere II. Kapituluari, "Euskal Herri Administrazioen arteko erakunde antolaketa eta koordinazioa", I. Atalaren 10. Artikuluari zehazten ditu **Tokiko administrazioen eginkizunak berdintasunaren arloan**:

1. Foru- eta toki-administrazioek, bakoitzak bere burua antolatzeko dituen eskumenen eremuan, beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu, gutxienez, dagokion jardueraren-eremuan.
2. Erakunde, organo edo administrazio-unitate horiek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, gutxienez ondoko eginkizunak beteko dituzte:
  - a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagokien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.
  - b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.
  - c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.
  - d) Bakoitzak bere administrazioari sailei eta beren mende duden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.
  - e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak, egitea, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.
  - f) Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anitzeko jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.
  - g) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezkeen proposamenak eta sustapen-lana egitea.
  - h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
  - i) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
  - j) Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea
  - k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetzan izatea.
  - l) Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzeko.

## Martxoaren 22ko 3/2007 lege organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako

II. Tituluak bere I. Kapituluari, "Printzipio orokorrak", 14. 15. 16. 20. 21. 22. artikuluek Botere publikoen jardute-irizpide orokorrak zehazten ditu:

14. artikulua: Lege honen helburuetarako, **botere publikoen jardute-irizpide orokorrak** izango dira:

**Konpromisoa**, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko konstituzio-eskubidearen eragingarritasunari dagokionez.

**Tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa** barneratzea, ekonomia-, lan-, gizarte-, nahiz kultura-politikatara eta politika artistikoetara, lan-arloko bereizketak saihestu eta ordainsarien inguruko bereizketak ezabatzeko helburuarekin, eta indartzea emakume enpresaburuen gehikuntza, esparru guztietan, politika guztiak kontuan hartuta, eta emakumeek egindako lanaren balioa, etxeko lanarena barne.

**Administrazio publiko desberdinen arteko elkarlana eta lankidetzak**, tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa aplikatzean.

Emakumeen eta gizonen **partaidetza orekatua** hauteskunde-zerrendetan eta erabakiak hartu behar direnean.

**Genero-indarkeria, familia-indarkeria eta sexu-jazarpen nahiz sexuan oinarritutako jazarpen** era guztiak ezabatzeko behar diren neurriak hartzea.

Kontuan hartzea ahulezia berezia duten kolektiboetako emakumeen zailtasun zehatzak; emakume horien artean daude gutxiengoetara bildutako emakumeak, emakume emigranteak, haurrak, desgai diren emakumeak, adineko emakumeak, emakume alargunak eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak. Orobat, botere publikoek ekintza positiboko neurriak hartu ahal izango dituzte emakume horiei begira.

**Amatasun-egoera** babestea, arreta berezia jarritz, gizarteak beregana ditzan haurdunaldiaren, erditzearen eta edoskialdiaren ondoreak.

Emakumeen eta gizonen artean **lana, norberaren bizi- eta familia-bizitza uztartzea** ziurtatzen duten neurriak ezartzea, bai eta etxeko zereginak gauzatzean nahiz familiari arreta eskaintzean bi-bien ardura suspertzea ere.

**Administrazio publiko desberdinak eta gizarte-eragileak, emakumeen elkarteak eta bestelako erakunde pribatuak elkarlanean aritzeko tresnak** suspertzea.

**Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren eragingarritasuna suspertzea** subjektu pribatuen arteko harremanetan.

**Administrazio-esparruan sexista ez den hizkera ezartzea**, eta hizkera hori suspertzea harreman sozial, kultural eta artistiko guztietan.



## **15. artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren zeharkakotasuna**

Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko da botere publiko guztien jardunean, zeharkakotasun-izaerarekin

Administrazio publikoek printzipio hori modu aktiboan barneratuko dute, euren arau-xedapenak ematean nahiz betetzean, esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jarduera guztiak garatzean.

## **16. artikulua. Botere publikoek egindako izendapenak**

Botere publikoek ahaleginak egingo dituzte, ardurako karguetarako egin behar dituzten izendapenetan emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatuaren printzipioa betetzeko.

## **20. artikulua. Estatistiken eta ikerketen egokitzapena**

Lege honetako xedapenak eragingarriak izan daitezten, eta genero-ikuspegia botere publikoen ohiko jardueran eragingarritasunez barneratu dadin, botere publikoek hurrengoak egin beharko dituzte euren azterketa eta estatistikak gauzatzean:

- a) Sexu-aldagaia sistematikotasunez sartzea estatistiketan, inkestetan eta egiten dituzten datu-bilketetan.
- b) Estatistika-eragiketetan adierazle berriak sartzea, ahalbidetuko dutenak hobeto ezagutzea emakumeen eta gizonen desberdintasunak, balore, eginkizun, egoera, baldintza, asmo eta beharrianei dagokienez; halakoak zelan azaleratzen diren; eta aztertu beharreko errealitatean halakoek duten eragina.
- c) Beharrezko adierazleak eta mekanismoak diseinatu eta sartzea, ahalbidetuko dutenak, Administrazio publikoek zein esparrutan esku hartu eta esparru horietan askotariko bereizkeria-egoerak sortzen dituzten beste aldagai batzuen berri izatea.
- d) Behar besteko edukia duten laginak gauzatzea, sartutako aldagai desberdinak sexu-aldagaiaren arabera erabili eta aztertu ahal izateko.
- e) Euren eskuetan dituzten datuak erabiltzea, Administrazioak zein esparrutan esku hartu eta esparru horietan jakin dadin emakumeek eta gizonak dituzten egoera, baldintza, asmo eta beharriaren desberdinak.
- f) Eginda dauden estatistiketako definizioak aztertu eta, hala denean, egokitu, hori lagungarri izan dadin, emakumeen lana aitortu eta balioesteko, eta emakumeen zenbait kolektiboren gaineko estereotipo negatiboa saihesteko.

Salbuespenez, eta organo eskudunak onetsitako txosten ziodunaren bidez, justifikatu ahal izango da zehaztu berri diren betebeharretarik baten bat ez betetzea.

## **21. artikulua. Administrazio publikoen arteko elkarlana**

Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoetako Administrazioak lankidetzan arituko dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-eskubidea euren eskumenetan barneratzeko eta, batik bat, euren jardueren plangintzetan.

Xede horrekin, Emakumearen Sektoreko Konferentzian batera jarduteko plan eta programak onetsi ahal izango dira.

Toki-erakundeek berdintasun-eskubidea barneratzeko dute euren eskumenak gauzatzean, eta, horretarako, elkarlanean arituko dira gainerako Administrazio publikoekin.

## **22. artikulua. Denbora-tarteen plangintza modu zuzenean egiteko ekintzak**

Emakumeen eta gizonen artean denbora-tarteak modu zuzenean banatzeko helburuarekin, toki-korporazioek hiriko denbora-tarteak antolatzeko udal-planak egin ahal izango dituzte.

Autonomia-erkidegoen eskumenei kalterik egin gabe, estatuak laguntza teknikoa eman ahal izango die halako planak egiteko.

## **V. TITULUA**

Berdintasun-printzipioa enplegu publikoan

LEHENENGO KAPITULUA. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN JARDUTE-IRIZPIDEAK

### **51. artikulua. Administrazio publikoen jardute-irizpideak**

Administrazio publikoek, kasuan kasuko eskumenen esparruan, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatuz, hurrengo eginbeharrak izango dituzte:

- a) Edozein bereizkeria-mota iraunaraztea eragiten duten oztopoak kentzea, emakumeen eta gizonen artean berdintasun eragingarritasun baldintzak eskaintzeko asmoarekin, enplegu publikoa lortzeari eta lanbide-karreraren garapenari dagokienez.
- b) Erraztasunak ematea, norberaren, familiako eta laneko bizitza uztartzeko, lanbide-aurrerakuntzari kalterik egin gabe.
- c) Berdintasun-arloko prestakuntza suspertzea, enplegu publikoa lortzean nahiz lanbide-karreraren zehar.
- d) Hautaketa- eta balorazio-organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea.
- e) Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako babes-neurri eragingarriak ezartzea.
- f) Neurri eragingarriak ezartzea, ordainsariei dagokienez, zuzenean edo zeharka, sexuan oinarrituta egindako edozein bereizkeria ezabatzeko.
- g) Aldizkakotasunez ebaluatzea berdintasun-printzipioaren eragingarritasuna, horrek jardun behar duen esparru zehatzetan.

## Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, bere 15. artikuluan, zehatz-mehatz agintzen dio Eusko Jaurlaritzari legegintzaldi bakoitzean Berdintasunerako Plan bat onesteko, euskal botere publikoek berdintasunaren arloan bideraturiko jarduerak modu koordinatu eta globalean jaso ditzan. 2013ko abenduan onartu zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana, honako bi esparru handi hauetan egituratzen dena:

Berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak. Hamahiru neurri Euskal Herri Administrazioan berdintasunaren aldeko oinarriaren integrazioa bultzatzeko.

- G1. Berdintasunerako plangintza areagotzea eta hobetzea
- G2. Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea
- G3. Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea
- G4. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea
- G5. Prestakuntza jardueretan genero ikuspegia sartzea
- G6. Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea
- G7. Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea
- G8. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea
- G9. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea
- G10. Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea
- G11. Kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea
- G12. Epaimahaietan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua sustatzea
- G13. Kontsultarako eta parte-hartzeko organoetan genero-ikuspegia sartzea

Esku hartzeko ardatzak berdintasunaren arloan. Hiru esparru nagusi berdintasunaren arloan, eta zortzi berariazko programa.

### I. Ardatza. **Balioen Aldaketa eta Emakumeen ahalduntzea**

1. Programa: Balioak aldatzea
2. Programa: Ahalduntze pertsonala laguntzea.
3. Programa: Ahalduntze kolektiboa laguntzea.
4. Programa: Ahalduntze soziala eta politikoa laguntzea

### 2. Ardatza: **Gizarte antolamendu erantzukidea.**

5. programa: Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera berriak
6. Programa: Kontziliazio erantzukidea

### 3. Ardatza: **Emakumeen aurkako indarkeriaren desagerraraztea**

7. Programa: Sentsibilizazioa eta prebentzioa
8. Programa: Detekzioa eta arreta

EAEko Berdintasunaren aldeko legeria eta plangintza hauetara biltzen da Plan honen esparru arau-emailea eta estatuan, Europan eta nazioarteko mailan azken urteotan berdintasunaren aldeko politiken arabera garatu diren lege esparruen barnean dihardu era berean.

Honez gainera, erreferentziazko esparrutzat hartu da **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana**, arau eta lege testuinguru bereberean diseinatua.

# 4. LANTZE PROZESUA

Arestian adierazitako lege esparrua, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Planaren egitura, Ebaluazioaren Txostenean iritsitako konklusioak eta txosten horretan proposatutako jardueraildoak eta Berdintasunarekin eskarmentua eta honek berdintasunerako politikekiko Udalaren egoerari buruz egindako balorazioa kontuan izanik eratu da Berdintasunerako Plana.

Prozesuan **ikuspegi tekniko zein politikoa bermatu dira**. Berdintasunerako ardura, Berdintasun teknikariak, Gizartekintzako arduradun teknikoak eta arlo horren Zinegotziak, era berean alkatea dena, hartzen dute beren gain.

- **Berdintasun Taldearekin** batera zehaztu dira Berdintasunerako II. Planak eduki beharreko ezaugarriak zein helburu estrategikoak eta hori lortzeko Plan egiturarik egokiena erabaki da. Hurrengo urratsa, helburuak eta neurriak lehenestea izan da.
- **Udalbatzarra**. Bi momentuetan landu da planaren proposamena; Parte hartze teknikoa hasi baino lehen eta behin helburuak, neurriak eta haien arduradun eta kronograma zehaztuta.
- **Arloen arteko berdintasunerako Mahai Teknikoarekin**. Berdintasunerako I. Planaren ezarpenaren ardura izan duen Mahai Teknikoak, Berdintasunerako II. Planaren erabakitako ardatzetan, identifikatu diren esku hartze lehentasunak, dauden eta behar diren baliabideak, eta zeharkakotasuna bermatzeko neurriak landu dira.
- Berdintasunerako II. Plana eraikitzen zen bitartean, udal antolakuntzari buruz gogoeta prozesu bat abiatu da. Prozesu horren ondorioz, udal jarduera koordinatua eta koherente bermatzeko, **GKT** (osaera mistoa, teknikoa eta politikoa, duen egitura) erabiltzea erabaki da. Talde honek planaren helburu eta neurrien diseinuaren ardura hartu du bere gain.
- **Urnietako elkarten parte hartzea**. Herriko elkarte guztiak deitu dira lan saio batera, planaren egitura aurkezteko eta, lan taldeen bidez, haien ekarpenak jasotzeko. Behin I. zirriborroa egina, aurreikusita zeuden alde biko bilerak probestuz, hiru esku hartze ardatzen helburuak eta neurriak aurkeztu zaizkie eta berriz ere bere ekarpenak jaso dira. Urnietako Berdintasunerako II. Plana onartu denean, udal web orrian jarri da herritar guztien eskura.

# 5. PRINTZIOPIO GIDARIAK

## 1. Paradigma feminista

Politika publikoetatik begirada zabaldu behar da, kontzepzio, balio, ezaguera, jardunbide eta esperientzia feministen pedagogia bat egiteko, emakumeen aurkako bereizkeriak eta indarkeriak ezabatzeko bide gisa eta pertsona guztien berdintasuna eta herritartasun osoa sustatzen duten bestelako egituren aldeko apustu irmo gisa. Horregatik Feminismoa eta haren korranteak dira II. Planaren oinarria.

## 2. Balioak aldatzea

Nahiz eta aldaketak, gizartearen egungo balioek gizonen nagusitasun hierarkikoa islatzen dute oraindik, emakumeekiko, bai eta balorazio eta aitortza handiagoa ere gizonen lorpenetan.

Gure sinesmen, portaera eta mundua ulertu zein azaltzeko eretan txertaturik daude balio androzentrikoak, eta posible egiten dute gizarte-antolaketa patriarkalak segitu dezan genero-bazterkeriak eta -ezberdintasunak ahalbidetzen eta betikotzen.

Hori dela eta, Urnietako Berdintasunerako II. Planak bizitzaren arlo guztietan balioa aldatetaren aldeko apustua egiten du, gizarteak berdintasunerantz egin dezan.

## 3. Emakumeen parte-hartzea

Emakumeen parte hartzea ezin besteko printzipio da bahit da Demokrazia berdintasuna lortuz garatzeko.

Emakumeen parte hartzea printzipio gidari gisa aitortzeak ahalduz egitearen ikuskera feminista du oinarri.

Emakumeen eta haien mugimenduen ekarpenak aintzat hartzeko behar diren bideak sortu eta emakumeen eta haien mugimenduen ahalduz egiteko pertsonak, kolektibo eta soziopolitikoko prozesuei lagundu behar zaie. Azken batean, ahotsa eman eta ahots horrek zilegitasuna izan behar du.

## 4. Erantzukidetasuna eta lankidetzak

Udaleko alor guztiek dute erantzukizuna emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko zereginetan, alor bakoitzak bere eskumeneko esparruetan zuzenean eraginez, eta langileak nahiz baliabideak erabiliz gizarte berdinarago bat elkarrekin eraikitze aldera.

Lankidetzazko parte-hartzea aldi berean da betebeharra eta jarduketarako irizpide orokorra, erantzukizun partekatua bermatzeko eta, era berean, politika publikoa diseinatzen, gauzatzen zein ebaluatzen ari diren eragileek era aktiboan parte har dezaten ziurtatzeko.

## 5. Gardentasun bermea

Informazio publikoa eskuratzeko konpromisoa eta bermea izan behar dute jarduera politiko guztien ardatz.

Gardentasuna gizartearen eskakizun bat da, administrazio publikoak bete beharrekoa, gai eta aferak publikoek buruzko informazioa emanez.

Administrazioaren gardentasuna eguneroko jardunaren gaineko komunikazioa ematea da.

Politika publikoen ebaluazioaren kultura egoteak gardentasuna eta kontuak ematea bermatzen ditu, horregatik Berdintasunerako II. Planaren printzipio gidarietako beste bat da; izan ere, hura ezarrita, Urnietako herritarrek eragiten dieten prozesu eta erabakietara iritsi eta ezagut ditzakete.

# 6. EGITURA

4 atalen inguruan egituratu da Urnietako Udalaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Plana.

## ● GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISO POLITIKOA

- 11 helburu estrategikoa
- 16 neurri

## ● 3 ESKU HARTZEKO ARDATZAK

### 1. EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

- 3 helburu estrategiko
- 6 neurri

### 2. BIZITZAREN JASANGARRITASUNA

- 3 helburu estrategiko
- 5 neurri

### 3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

- 2 helburu estrategiko
- 5 neurri

# 7. Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa



# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

«Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, neurri politikoak hartzeko orduan zeresana duten aktore guztiek politika, maila eta etapa guztietan sar dezaten genero berdintasunaren ikuspegia»

(Europako Kontseilua)

## helburu orokorra

Genero ikuspegia Urnietako udalaren jardueran txertatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin benetako konpromiso baten bidez eta Berdintasuna gobernagarritasun printzipio bihurtuz.



# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

HELBURUAK	NEURRIAK
G1. Urnietako Udalaren Berdintasunerako plangintza eta prozesuak hobetzea.	G1.1. Arlo bakoitzeko kudeaketa planetan berdintasunerako ekintzak sartzea.
	G1.2. Jarraipena eta ebaluaziorako tresna bat egitea.
	G1.3. Planari buruzko barne komunikazioa hobetzea.
	G1.4. Lanpostuen diagnosia genero ikuspegitik egitea.
G2. Berdintasunerako egitura administratiboak sortzea eta indartzea.	G2.1. Berdintasunerako estrategia bultzatzeko berariazko egitura bat sortzea eta indartzea.
G3. Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea.	G3.1. Udalerri arteko koordinazio-espazioetan parte hartzea.
	G3.2. Berdintasunerako estrategia bultzatzeko koordinazio teknikoa eta politikarako egiturak sortzea eta indartzea.
G4. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	G4.1. Datuen bilketarako sistema bat diseinatzea.
G5. Prestakuntza jardueretan genero-ikuspegia sartzea.	G5.1. Berdintasunean prestakuntza plan bat egitea udal arlo bakoitzeko egokitua.
G6. Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea.	G6.1. Udalak sortzen dituen dokumentuak zein euskarri komunikatibo guztietan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatzea.
G7. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.	G7.1. Berdintasunerako arau propioa egitea.
G8. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.	G8.1. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzearen ardura dutenei gaikuntza bermatzea.
	G8.2. Berdintasunerako aurrekontu propioa izatea.
G9. Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.	G9.1. Legealdian garatzen diren sektore planetan genero ikuspegia txertatzea.
G10. Kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulak sartzea.	G10.1. Berdintasunerako klausulei buruzko gaikuntza bermatzea.
	G10.2. Diru laguntza eta kontratuetan sartu diren klausulen betetze mailaren jarraipena egitea.

# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

G1. HELBURU		Urnietako Udalaren Berdintasunerako plangintza eta prozesuak hobetzea	
NEURRIAK	ekintzak	epea	ardura
G1.1. Arlo bakoitzeko kudeaketa planetan berdintasunerako ekintzak sartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Urteko berdintasunerako planifikazioaren arabera arlo buru bakoitzak dagozkion ekintzak bere kudeaketa planean sartuko ditu.</li> <li>GKT-n aurkeztuko dira oniritzia emateko.</li> </ul>	2017-2020	Talde motorraren Koordinatzailea
G1.2. Jarraipena eta ebaluaziorako tresna bat egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasunerako II. Planaren adierazleak jarraipen sisteman sartzearen aukerak bermatzea.</li> </ul>	2017-2020	GKT-ren Koordinatzailea
G1.3. Planari buruzko barne komunikazioa hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Planaren onarpena, ezarpenaren une garrantzitsuenak eta jarraipen datuak kanpo eta barne komunikatzeko, proposamen bat aurkeztuko da Talde motorraren.</li> </ul>	2017-2020	Sustapena
G1.4. Lanpostuen diagnostia genero ikuspegitik egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Urnietako Udalaren barne diagnostikoa egin.</li> <li>Hobetu beharreko eremuak eta bermatzeko jardunbideak identifikatu.</li> </ul>	2020	Idazkaritza

## Adierazleak

G1.1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasunerako ekintzak aintzat hartu dituzten kudeaketa planen portzentajea.</li> </ul>
G1.2	<ul style="list-style-type: none"> <li>Tresna egina.</li> <li>Berdintasunerako II. Planean urteko neurrien betetze maila, ehunekotan.</li> </ul>
G1.3	<ul style="list-style-type: none"> <li>Barne zein kanpo komunikazio plana onartua.</li> <li>Zabaldu diren oharra eta artikulua guztira.</li> </ul>
G1.4	<ul style="list-style-type: none"> <li>Diagnostikoa egina.</li> </ul>

<b>AURREKONTUA</b>	48 ordu x 4 urte 1.600 €
--------------------	-----------------------------

# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

G2. HELBURU	Berdintasunerako egitura administratiboak indartzea		
NEURRIAK	ekintzak	epea	ardura
G2.1. Berdintasunerako estrategia bultzatzeko berariazko egitura bat sortzea eta indartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasunerako Talde Motorraren berariazko funtzioak eta ardurak definitu eta koordinaziorako sistemak zehaztu.</li> </ul>	2017	Gizartekintza

## Adierazleak

G2.1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde motorraren egitura eta funtzioak dokumentu batean jasoak</li> <li>Urtean egin diren bilerak guztira</li> </ul>
------	---

AURREKONTUA	30 ordu x 4 urte 0 €
-------------	-------------------------

# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

G3. HELBURU		Berdintasunerako koordinazio-egiturak sortzea eta indartzea	
NEURRIAK	ekintzak	epea	ardura
G3.1. Udalerrri arteko koordinazio-espazioetan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Koordinaziorako batzorde edo egitura desberdinetan parte hartzen jarraitzeko beharrezkoak diren baldintzak ziurtatu eta arlo guztietatik etor daitekeen informazioa luzatu eta partekatu.</li> <li>Gauzatu den parte hartzea dokumentu batean jaso eta urtero balorazioa egin.</li> </ul>	2017  2017-2020	Gizartekintza
G3.2. Berdintasunerako estrategia bultzatzeko koordinazio tekniko eta politikarako egiturak sortzea eta indartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritargoko Batzorde informatiboetan duten ardura zehaztu.</li> <li>Talde motorra eta Batzorde informatiboaren arteko koordinaziorako sistema zehaztu.</li> </ul>	2017	Gizartekintza

## Adierazleak

G3.1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Urtean izan diren bilerak guztira</li> </ul>
G3.2	<ul style="list-style-type: none"> <li>Batzorde informatiboaren egitura eta funtzioak definituak</li> </ul>

<b>AURREKONTUA</b>	15 ordu x 4 urte 0 €
--------------------	-------------------------

# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

G4. HELBURU	Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea		
NEURRIAK	ekintzak	epea	ardura
G4.1. Datuen bilketarako sistema bat diseinatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Departamentu bakoitzean identifikatu zer estatistikak behar diren eta zertarako, eta nola jasoko diren.</li> <li>• Horren koordinazioa definitu.</li> <li>• Diseinua egin eta aplikatu</li> </ul>	2019-2020	Talde Motorra

## Adierazleak

G4.1	• Adierazleak sexuaren arabera banatuak jasotzen dituen sistema diseinatua
------	--

AURREKONTUA	62 ordu x 2 urte 3.200 €
-------------	-----------------------------

# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

G5. HELBURU	Prestakuntza jardueretan genero-ikuspegia sartzea		
NEURRIAK	ekintzak	epea	ardura
G5.1. Berdintasunean prestakuntza plan bat egitea udal arlo bakoitzeko egokitua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udal prestakuntza planaren barruan teknikarien zein politikarien berdintasun alorrean beharrak bermatzen.</li> </ul>	2018-2020	Idazkaritza

## Adierazleak

G5.1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Prestakuntza plana egina.</li> <li>Langile bakoitzak berdintasunerako landu dituen orduak batez beste.</li> </ul>
------	--

AURREKONTUA	21 ordu x 3 urte 3.200 €
-------------	-----------------------------

# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

G6. HELBURU :	Hizkuntza eta/edo beste komunikazio-elementu batzuk modu ez-sexistan erabiltzea.		
NEURRIAK	ekintzak	epea	ardura
G6.1. Udalak sortzen dituen dokumentuak zein euskarri komunikatibo guztietan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde motorrean gidalerro batzuk onartu eta udal langile eta ordezkari politikoen artean zabaldu.</li> </ul>	2018-2020	Sustapena

## Adierazleak

G6.1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista bideratzen diren dokumentuen portzentajea, autazko aukeraketa batean.</li> </ul>
------	---

<b>AURREKONTUA</b>	42 ordu x 3 urte 0 €
--------------------	-------------------------

# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

G7. HELBURU :		Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.		
NEURRIAK	ekintzak	epea	ardura	
G7.1. Berdintasunerako arau propioa egitea aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beste tokiko administrazioen Berdintasun arauak aztertu.</li> <li>• EUDELEk duen gida jarraituz, proposamen bat egin.</li> <li>• Talde motorrean aztertu.</li> </ul>	2019-2020	Idazkaritza	

## Adierazleak

G7.1	• Txostena egina.
------	-------------------

AURREKONTUA	42 ordu x 3 urte 3.200 €
-------------	-----------------------------



# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

G8. HELBURU :		Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea.		
NEURRIAK	ekintzak	epea	ardura	
G8.1. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzearen ardura dutenei gaikuntza bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>5. helburuan zehazten den prestakuntza planaren barruan, aurrekontuak generoaren arabera lantzeko teknikari eta politikarien prestakuntza beharrei erantzuna emateko neurriak sartu.</li> </ul>	2018-2020	Kontuhartzaitza	
G8.2. Berdintasunerako aurrekontu propioa izatea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Partida aurrekontuan txertatzea</li> </ul>	2017-2020	Talde motorraren koordinatzailea	

## Adierazleak

G8.1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Prestakuntza ekintzak urtean guztira</li> </ul>
G8.2	<ul style="list-style-type: none"> <li>Urtero berdintasunerako aurrekontua onartua.</li> </ul>

<b>AURREKONTUA</b>	42 ordu x 4 urte 1.600 €
--------------------	-----------------------------

# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

G9. HELBURU :		Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.	
NEURRIAK	ekintzak	epea	ardura
G9.1. Legealdian garatzen diren sektore planetan genero ikuspegia txertatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Onartu beharreko planetan genero ikuspegia planetan dagokion arduradunak txertatzea (harrera plana, hirigintza plana...).</li> <li>• Kasu bakoitzean baloratu, prestakuntza behar den ala azpikontratazioa</li> </ul>	2017-2020  2017	Arlo bakoitza

## Adierazleak

G9.1	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalean, diseinuan, ebaluazioan eta kudeaketan genero ikuspegia sarrarazi duten Planen portzentajea.</li> </ul>
------	--

<b>AURREKONTUA</b>	192 ordu x 4 urte 3.200 €
--------------------	------------------------------

# Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

G10. HELBURU :		Kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulak sartzea.		
NEURRIAK	ekintzak	epea	ardura	
G10.1. Berdintasunerako klausulei buruzko gaikuntza bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>5. helburuan zehazten den prestakuntza planaren barruan, berdintasunerako klausulei buruzko prestakuntza aurreikusi.</li> <li>GFA-rekin kontaktuan jarri, klausulen ezartzeko prozesuan estrategia bateratua izateko.</li> <li>Oinarri bakoitza egin aurretik berdintasuna txertatzeko txosten bat eskatu dagokion teknikariari: " zertan eragin lezake kontratuak berdintasunean?" eta txosten eredu bat onartu Talde motorraren gero kontratu guztietan txertatzeko.</li> </ul>	2018-2020	Idazkaritza	
G10.2. Diru laguntza eta kontratuetan sartu diren klausulen betetze mailaren jarraipena egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Dirulaguntzetan sartzen diren klausula bakoitzendako egiaztatzaileak zehaztu.</li> <li>Egiaztatzaileen bidez, klausulen betetze maila neurtu</li> </ul>	2017-2020	Arlo bakoitzak+ Talde motorra	

## Adierazleak

G10.1	<ul style="list-style-type: none"> <li>Klausuletan prestaturiko teknikarien portzentajea, sexuaren arabera banatua.</li> <li>Klausuletan prestaturiko politikarien portzentajea, sexuaren arabera banatua.</li> </ul>
G10.2	<ul style="list-style-type: none"> <li>Berdintasunerako Klausulak aintzat hartuak izan diren dirulaguntzen portzentajea.</li> <li>Berdintasunerako Klausulak aintzat hartuak izan diren kontratuen portzentajea.</li> </ul>

<b>AURREKONTUA</b>	32 ordu x 4 urte 0 €
--------------------	-------------------------

## 8. BERDINTASUN GAIETAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK

